

Batzarreko asistentzia-galdetegiaren emaitza

Azaroan egin genuen Bazkideen Urteko Batzarreko asistentzia baxua ikusi eta Ikastolan sortutako kezka dela eta, abenduan galdetegi bat bidali zen etxeetara. Ikastolako gaiak jorrazteko espazio eta une desberdinak daude, eta Batzarra gai horiek partekatzeko eta erabakiak hartzeko gune garrantzitsua da. Beraz, [hemen](#) ikus ditzakezu egindako azterketaren emaitzak.



Ikastolak herriari ekimena: Euskara batuari gorazarre

Azken urte hauetan, ikastolen aldeko bost jaien artean, **IKASTOLAK HERRIARI** lelopean, ekimen bateratuak antolatzen ari gara. Ekimen horien bitartez, gure proiektuak, ikastolen proiektuak duen dimentsio nazionala azpimarratzeaz gain, ikastola guztion artean osatzen dugun sarea indartu nahi dugu.

Aurten **BATASUNAREN BIDEAN** ekimena antolatzera goaz, eta zuen partehartzea ezinbestekoa da!

Orereta ikastolak sustatua, ekimenak gainerako lurraldeetako babesa jaso du eta horregatik Euskal Herri mailako ekimen modura planteatzen da. **IKASTOLAK HERRIARI** ekimenaren baitan dagoen filosofia eta planteamendua Euskal Herriko herritar zein eragileekin bat egitea baita. Bost jaien bitartez beraz, **Euskal Herri osoa ekimen horretan parte hartzera deitzen dugu.**



TRANSMISIORAKO EKIMENA

Ekimen hau Euskal Herriko herritar guztiei zuzenduta egon arren, **gazteengan, ikasleengan arreta berezia jarri nahi dugu.**

Euskara Batuak gure herrian izan duen garrantzia goraiatu bakarrik ez, bere testuinguru eta bilakaera historikoa gure ikastetxeetan dauden ikasleei transmititu nahi diegu.

Kontakizun hori egiteko, Euskaltzaindia dugu ekimen horretan bidelagun. Elkarlan horren bidez, Euskaltzaindiak eta Ikastolen Elkartek, euskara batuaren sorreraren inguruko kontakizuna egingo dute, eta horretan parte hartu zuten 15 pertsoneri eskerrak emango dizkie, egindako ekarpenagatik.

EKIMENAREN DESKRIBAPENA ([Ikus diptikoa](#)):

- 2023ko martxoaren 24an Errenteria eta Donostia lotuko dituen giza katea egingo dugu, goizeko 11:00k eta 11:30 bitartean.
- Giza katea osatzeko 6.000 pertsona behar ditugu. Tarte horiek ikaslez, irakaslez eta herritarrez osatzeko ardura hartu dugu.
- Euskalgintzako eragileak eta herritarrak espreski parte hartzera gonbidatuko dira.

Euskara batuari egingo diogun gorazarrean, beraz, zuen partehartzea beharrezkoa da!
[Informazio gehiago...](#)

Udako aisialdi-eskaintza

Aurten ere Zirimolak, Ikastolen Elkarteko aisialdi taldeak, prestatu du [udako aisialdi-eskaintza](#). Bertan, berrikuntza ugari ikusiko dituzue, tartean egitasmo bat gehitu zaiola eskaintzari. Modu horretan Euskal Herriko ertz guztietako haurrek uda Zirimolarekin batera gozatzeko aukera izan dezaten. [Informazio gehiago...](#)



"Nafar hegoaldeko uzta eskutik eskura" kanpaina

ERRIGORA ekimenak, auzolanean, Nafarroa hegoaldeko nekazaritza indartu asmo du, horretarako, eremu horretakoak propio diren produktuak Euskal Herriko plazan jarri. Aldi berean, "zona no vascofona" izendatutako euskalgintzari ekarpen txoa egin nahian, bultzada ekonomikoa ematea ere badu helburu. Honela, produktu ezberdinak daude salmentan.



Informazio gehiago: errigora.eus

Aukeran izango diren produktuak: oliba-olio birjina estra, kontserbak, arroza, pasta eta lekaleak.

Epea: martxoak 9-29.

Eskaerak: online errigora.eus bidez edo NOAUA! Kultur Elkartearen egoitzan.

Banaketa: maiatzaren 12an eta 13an Udarregi ikastolan.

Ordainketa: online eginez gero bi zatitan edo dena batera ordaintzeko aukera. Bestela, eskudirutan, produktuak jasotzerakoan.

HAUR HEZKUNTZA

Haur Eskolako haurren hutsegiteak

0 eta 3 urte bitarteko haurrak haur eskolara etortzen ez direnean, mesedez, ikastolako idazkaritzan jakinarazi, ahal bada, 9:30 aurretik usurbil@ikastola.eus helbidera idatziz.



Gela-bilerak

Datorren asteartean, **martxoak 21**, arratsaldeko **17.30**ean **1-2** adin tarteko haurren gela-bilera egingo da (Manttangorrien gela, Astoen gela eta Behien gela).

Martxoaren 29an, asteazkena, **17.30ean**, **0-1 urteko haurren** eta **2-3 urteko haurren gela bilerak (Txerriak eta Tximeletak)**.



Bilera modu lasaiagoan egite aldera, haurrik gabe etortzea gomendatzen dizuegu.

LEHEN HEZKUNTZA

Proiektu solidarioa NEPALDALAren alde!!

LH6ko ikasleak gara eta NEPALDALA Gobernu Kanpoko Erakundeari laguntzeko proiektuan murgilduta gaude. Beraiek, ahalegin handiak egiten dituzte Nepalgo neskek hezkuntza jasotzeko aukera izan dezaten eta guk lagundu egin nahi diegu. Horretarako, martxoaren 13tik 17ra honako ekintza hau antolatu dugu:



***Gaur, martxoak 17: KORRIKA SOLIDARIOA**

- Haurrek 0 urte-LH 3 arte (gurasoen laguntzaz nahi izanez gero) 18:00etan emango diote hasiera. Gazteak (LH 4tik gora) eta helduak, 18:30ean.
- NEPALDALA erakundearen aldeko denda ere, herriko frontoian egongo da eta produktuak, zozketa-txartelak eta dortsalak erosi ahal izango dira. Baita pintxo goxoak jan ere!

ANIMATU eta PARTE HARTU!!!

Irteeraren kobrantza

GAUR LH 5. mailako ikasleek **Pagoetara** egindako irteera kontu korrante bidez kobratuko dela jakinarazten dugu. Kostua:

- Autobusa: 12,00 €
- Sarrera: 4 €
- **Guztira: 16 €**



Irteera

6. mailako ikasle eta irakasleak Flysch-a ezagutzeko egun osoko irteera egingo dugu Zumaiara datorren astelehenean, martxoak 20. Arratsaldeko 16:30ean itzuliko gara.



LH6-ko familientzat oharra

LH6ko ikasleen gurasoentzat DBH-ren inguruko eta hautazko arloen inguruko aurkezpen-bilera egingo da **martxoaren 23an** arratsaldeko **17:00etan**. Bertan datorren urtean ikasleek egingo duten etapa aldaketaren inguruko zalantzak argitu eta, bide batez, hautazko arloen inguruko azalpenak emango dira. Azalpen horiek ikasleei ere egingo zaizkie aparteko aurkezpen batean, klase orduetan. Bilera Eraikin Gorrian izango da. (DBH1 A gela)



Batasunaren bidean

Martxoaren 24ko Batasunaren Bidean ekintzan parte hartuko dugu LH4, LH5 eta LH6ko ikasleekin. Donostira joango gara eta egun osoko irteera egingo dugu.

Egun horretan ikasleak zerbait berdea jantzita ekarri behar dute (**kamiseta, jertsea,..**)



Irakurketa-solasaldia

Usurbilgo Udal Liburutegiak **IRAKURKETA-SOLASADI** ekintza berri bat antolatu du, oraingoan **LH4 eta LH5eko haurrentzat**; saioa **APIRILAREN 25ean izango da, arratsaldeko 6etan, Liburutegian** bertan. **Mintzagai** izango dugun liburua, **Yolanda Arrietaren ZAZPI PERTSONAIA ISTORIO BILA** izango da, eta Yolanda bera izango dugu irakurketa-partekatze horretan bidelagun. **Solasaldian parte hartu nahi duenak**, liburutegian izena-eman behar du, eta nola ez, liburua jaso irakurtzeko!



DBH

Irteera

Martxoaren 23an DBH 3. mailako ikasle guztiekin **arlo artistikoarekin** lotutako irteera egingo dugu. Arte garaikidea gertutik ezagutzeko Guggenheim Museoa ekintzak egin eta, bide batez, Bilboko alde zaharrera ere gerturatuko gara.

Autobusaren prezioa: 11,5€. **Kobrantza gaur**, martxoak 17, egingo da.



Batasunaren bidean

Martxoaren 24ko Batasunaren Bidean ekintzan parte hartzeko tren hartuko dugu, beraz, DBHko ikasleek **MUGI** txartela ekartzea komeni da. Egun pasa izango denez, hamaiketakoa eta bazkaria ere ekar dezakete.

Egun horretarako **arropa berdea ekarri** beharko dute (**kamiseta, jertsea...**)

